


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEHIAKORTASUNARI BURUZKO 2018ko TXOSTENA


Txostenak 50 adierazle baino gehiago aztertzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren diagnostikoa egiteko, Orkestrak eskualdeko lehiakortasuna aztertzeko eraikitako esparruari lotuta. Gainera, datozen urteetan landu beharko diren edo arreta berezia mereziko duten gaiak identifikatzen ditu.

LEHIAKORTASUNA AZTERTZEKO ESPARRUA



Euskal Autonomia Erkidegoaren erreferentziako eskualdeak identifikatzeko, ezaugarri geo-demografikoak; zientzia, teknologia eta sektore espezializazioa; enpresen tamaina; ekonomiaren irekitze maila; eta gobernantza hartu dira kontuan.

Lurralde	Lurralde
Aragón	Cantabria
C. F. de Navarra	Midi-Pyrénées
Pays de la Loire	Bourgogne
West Midlands	Schleswig-Holstein
South West	Franche-Comté
Northern Ireland	Tirol
Lorraine	Aquitaine
North East	Cataluña
Steiermark	Wales
East Midlands	Provence-Alpes-Côte d'Azur
Yorkshire and the Humber	Rhône-Alpes
Midtjylland	Alsace
Emilia-Romagna	Friuli-Venezia Giulia
Syddanmark	Västsvrige
Centre	Oberösterreich



LEHIAKORTASUNARI BURUZKO BEHATOKIA

Lehiakortasunari buruzko Behatokiak lehiatzeko adimena eman nahi die enpresa, gobernu, unibertsitate eta bestelako erakundeei. Ekonomiaren ingurune globalak eta gizarte eta ekonomia arloko ziurtasun ezek inoiz baino beharrezkoago egiten dute lehiakortasuna zerk baldintzatzen duen eta gure indar guneak eta ahultasunak zein diren ulertzea. Lehiakortasuna epe luzera iraunkorra izatea nahi bada, portaera eta baldintzak hobetzen

jarraitu behar dugu, hazkundera, enplegua eta ongizatea sortzeko. Lehiakortasunari lotutako erronka horiei modu azkarragoan eta eraginkorragoan erantzuteko, Orkestrak Lehiakortasunari buruzko Behatokia jartzen du denon eskura. Plataforma digital honek lehiakortasunari lotutako adierazle nagusiak denbora errealean aztertzea ahalbidetzen du. Gainera, herrialdeekin eta eskualdeekin alderapenak egin daitezke.



Sartu behatokian:
www.orkestra.deusto.es/competitiveness-observatory

DIAGNOSTIKO ANALISIA

EMAITZA OROKORRAK

DIAGNOSTIKOA

Euskal ekonomia atzeraldi sakon batetik atera da. Euskal Autonomia Erkidegoa lehiakorra da eta emaitza onak sortzeko gai da, bai ekonomiari begiratuta eta bai gizarteari begiratuta. Biztanleko BPG eta enpresen produktibitatea handitu dira. Enpresek finantza egoera sendoa dute, neurri batean, soldaten moderazioarengatik eta produktibitatearen hazkunderarengatik. Horrek unitateko lan kostuak murriztea ahalbidetu du. Gizarte adierazle bilakaerak erakusten digu ekonomiaren susperraldia inklusiboa izaten ari dela.

ERRONKA

Europako ekonomiaren koiuntura onak lagundu dio Euskal Autonomia Erkidegoari aipatutako emaitzak lortzen, lurraldearen espezializazioaren eta ezaugarrien eraginez, sentibera delako ziklo ekonomikoaren aurrean eta energiaren prezioaren edo interes tasaren aurrean. Hainbat arlotan, ordea, ziurtasun eza nabaria da: demografia, ingurumena, baliabideak, gizarte kohesioa, lan harremanetako eredu berriak, edo faktore geopolitikoak. Horregatik, erne egon behar da, sor daitezkeen mehatxuei aurrea hartzeko eta erreakzionatzeko.

ENPLEGUA

DIAGNOSTIKOA

Langabezia tasak behera egin du, baina, hala ere, iraupen luzeko langabezia, emakumeena eta gazteena oraindik ere handiak dira.

ERRONKA

Enplegua sortzea da, oraindik ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren erronka nagusietako bat. Enplegu hori kalitatezkoa izateko baldintza egokiak sortu behar dira, gero eta automatizatuagoa den ingurunean. Horretarako, hezkuntza erakundeek, enpresek, gobernuak eta gizarteak lankidetzara estrategikoa indartu behar dute.

ESPORTAZIOAK

DIAGNOSTIKOA

Esportazioak nabarmen handitu dira. Esportatzaile erregularren oinarria sendotu egin da, nahiz eta oraindik bolumen txikiarekin lan egin.

ERRONKA

Nazioartekotze politikak esportatzaile erregularrak sendotu direla aprobetxatu behar dute, enpresa horien esportazioen intentsitatea sustatzeko.

BERRIKUNTZA

DIAGNOSTIKOA

Enpresa berrikuntzan maila ona baldin bada ere, behera egin du I+D+Gko gastuak. Era berean, eta efizientzia handitu bada ere, patenteen eta Europako diseinuen mailak ez datoz bat egindako gastuaren mailarekin.

ERRONKA

Berrikuntza sistemaren efizientzia handitu egin bada ere, oraindik hobetzeko aukera badago esparru horretan. Enpresen finantza egoera sendoa aprobetxatu behar da, berrikuntzan egiten den inbertsioa handitzeko. Erronka nagusia da enpresa txikiek ere berrikuntzaren bidea hartzea.

HEZKUNTZA

DIAGNOSTIKOA

EAEan handia da hirugarren hezkuntzako ikasleen ehunekoa eta sailkapeneko toki ertain-altuetan dago, alegia.

ERRONKA

Oraindik ere hobekuntzak egin behar dira, herritarren ehuneko handiagoak bitarteko kualifikazioak lortzeko eta sistema etorkizuneko enpleguaren eskakizunetara egokitzeko.

ESPEZIALIZAZIOA

DIAGNOSTIKOA

EAEk merkataritza saldo positiboak ditu espezializatuta dagoen sektoreetan. Azpimarratzekoa da sektore metalmekanikoaren lehiakortasuna: merkataritza ikuspegitik, espezializazioa agerikoa izateaz gainera, zientzia eta teknologiako garapen handia du. Azpiespezializatuta gaude RIS3 estrategiarako garrantzitsuak diren arloetan, esate baterako, zientzia ikuspegitik, Biomedikuntzan eta osasunean; teknologiarenetik, Material elektrikoaren eta Informatikako zerbitzuetan; eta merkataritzarenetik, Farmazian, Material eta ekipo elektronikoan, eta Informatikako eta elektronikako produktuetan.

ERRONKA

Merkataritza espezializazioa duten sektoreetan eragin handia izango luke shock batek, elkarren arteko loturak oso estuak direlako. Garrantzitsua da gure RIS3aren oinarrian dauden hiru espezializazio motak (zientziari, teknologiari eta ekonomiari lotutakoak) elkar indartzea eta kate mailarik ahulenak zuzentzea, bereziki zeharkakoak direnak, esate baterako, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak.